

MENDITARRA



I

Mendi tontorrak dira neretzat
lekurikan ederrenak,
mendi punta ta arkaitz zorrotzak
ditut lagunik onenak;
mendiyak dizkit neri aztutzen
izaten ditutan penak,
pentsamentu char, erru-gorriak
naigabe tristura lenak,
barrengo pozoi, aje, izuak,
eta atzekabe denak.

II

Auntzak mendia naiduben gisa
bere gozotazunian,
zeña zintzilik ibildutzen dan
arkaitz mutur muturrian;
ala berian sentitutzen det
poza nere barrenian
mendi altsuan zabal zabalik
izaera ederrian,

zeru aldera begira pozez
bakarrik nabillenan

III

Ez det menditik entzuten ezer
erriko durrunbadarik,
karrashi, otsa, marrua, bulla,
soñu ta zalapartarik;
ez da ez emen nabaitzen oju
deadar eta oyurik,
birtute onen galgarrirako
sortzen dituzten gauzarik,
jemen biyotza lasaya daukat
ez det barrengo keskarik!

IV

Emen bakarrik jzer sosegua:
zenbat eta altuago!
¿onlako poz ta alaitasunik
be-aldian bai aldago?
iruritzen zait zeru urdiña
askoz dagola bertago,
chori chikiyak ere kantari
esnatzen dira goizago,
zorion, pake, gloriya, dena
neretzat emenchen dago.

V

Eguzkiyaren printzak lenago
alaitzen dute mendiya,
musu zabalik jartzen danian
apaindutzen du guziya;

miragarrizko gauza ikusten
ez da azperten begiya,
nabaitutzen da aire gozoa
gutziz osasungarriya
ipar aldetik egan jostatzen
saplastaran etorriya.

VI

Sasi tartean lore ederra
sortu izan dan modura
ala berian sortua naiz ni
euskal mendiyen mundura;
ez du dezio nere barrenak
erriko ots aundi ura,
uskeri eta aiziak sortzen
dituztenak maiz burura,
¡Emen bakarrik nai det nik bizi
begiratuaz zerura

JOSÉ ARTOLA.

